

ENPRESEN EGOERA

**Salmentak, kanpo merkataritza,
enplegua eta soldatak**

HILEROKO TXOSTENA

➤ **Maiatza 2025**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas



AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatu ohi ditu Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, Gipuzkoako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera.

Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da argitalpen honen bidez.

Argitalpen honetako informazioa lortzeko, erabili dira **Gipuzkoan sozietate egoitza** duten **enpresa EZ finantzarioek** hilero aurkezten dituzten **aitorpenak**: Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta lanaren, jarduera ekonomikoen eta sarien etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak.

Normalean, informazio hau hilero argitaratzen da; dena den, uztaila eta abuztuko datuen analisisa batera egiten da; izan ere, uztaileko aitorpen-likidazioa aurkezteko epea, udara dela-eta, hilabete luzatzen da, irailaren 25eraino.

Eranskinaren hasieran dagoen oharrean aipatzen den bezala, metatutako epealdietako (hiruhilekoak, urtekoak...) bariazioak kalkulatzekoan populazio konstantearen irizpidea erabili ordez, batez besteko ponderatuaren irizpidea erabiltzen da.




EZAUGARRI NAGUSIAK

- 2025eko lehen bost hilabeteetan Gipuzkoako enpresen salmentak +%1,6 igo dira, 2024ko epealdi berdinarekin alderatuta. Igoera hori barne-merkatuaren portaera onari bakar-bakarrik zor zaio, salmentak +%2,6 igo baitira, eta esportazioak ez baitira aldatu (% 0,0).
- Maiatzeko datuak negatiboak izan dira, batez ere kanpo-merkatuan, salmenta -%11,3 jaitsi baitira. Barruko salmentek ere jaitsiera izan dute, baina askoz ere txikiagoa (-%0,8). Azkenean, salmenta osoak -%4,7 jaitsi dira, aurreko urteko maiatzaren aldean.
- Maiatzeko salmenten jaitsiera hori ez da islatzen lan-merkatuaren datuetan. Hala, lan etekinak jasotzen dituzten pertsonen kopurua pixka bat igo da maiatzean (+%0,4), eta enpresek ordaindutako soldatak, berriz, nabarmen igo dira (+%5,0). Urteko lehen bost hilabeteetako metatuan, enplegua % 0,7 igo da, eta soldatak, berriz, % 5,2.

1. taula - GIPUZKOA ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK
(Urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Maiatza	Δ% Urtarrila - Maiatza
Salmenta osoak	-4,7	1,6
Barruko salmentak	-0,8	2,6
Esportazioak	-11,3	0,0
Inportazioak	0,0	3,1
Enplegua	0,4	0,7
Soldatak	5,0	5,2

1 grafikoa – SALMENTAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

➤ 2025eko lehen bost hilabeteetan salmentak igo egin dira sektore guztietan


Salmenta osoen urteko metatuaren igoera orokorra (%1,6), neurri txikiagoan bada ere, industria sektorean (%+0,6) eta eraikuntzan (%+1,3) ere gertatu da, eta zerbitzu sektorearen hazkundeak (%+2,9), berriz, ia bikoiztu egin du hazkunde orokorra.

Maiatzean joera negatiboa ikusten da industrian (-%8,2) eta neurri txikiagoan zerbitzuetan (-%1,5), eta, aldiz, salmentak nabarmen igo dira eraikuntzan (%+8,4).

2 taula - SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK(urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Maiatza	Δ% Urtarrila - Maiatza
Salmenta osoak	-4,7	1,6
▪ Industria	-8,2	0,6
▪ Eraikuntza	8,4	1,3
▪ Zerbitzuak	-1,5	2,9

2 grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

➤ Gipuzkoako enpresen esportazioak berdin mantendu dira 2025eko lehen bost hilabete hauetan


Europako gure merkataritza bazkide nagusien ahultasunaren eta nazioarteko testuinguru ekonomikoaren ziurgabetasunaren ondorioz, Gipuzkoako enpresen esportazioak ez dira aldatu 2025eko lehen bost hilabeteetan, 2024ko epealdi berdinarekin alderatuta. Kanpoko salmenta horien norakoaren arabera azterketak erakusten du Europako herrialde nagusien ahultasun handiago hori; hala, EBrako esportazioak $-2,4\%$ jaitsi dira, eta gainerako herrialdeetarako salmentak, berriz, $+2,8\%$ igo.

Inportazioak, aldiz, handitu egin dira urteko lehen bost hilabete hauetan: $+3,1\%$. Eta erosketa horien jatorriari dagokionez, EBtik datozen erosketetan atonia handiago nabari da ($+0,7\%$); EBtik kanpoko herrialdeetatik datozen inportazioak $+10,4\%$ igo dira.

3. taula – ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	$\Delta\%$ Maiatza	$\Delta\%$ Urtarrila - Maiatza
Esportazioak	-11,3	0,0
• Europar Batasuna	-7,9	-2,4
• Munduko gainerako herrialdeak	-15,2	2,8
Inportazioak	0,0	3,1
• Europar Batasuna	-3,9	0,7
• Munduko gainerako herrialdeak	11,6	10,4

3. grafikoa - ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

- **2025eko lehen bost hilabeteetan Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua +%0,7 igo da**

Azken hilabeteetan nolabaiteko moteltzea ikusten bada ere, Gipuzkoako lan merkatua indartsu mantentzen da. Salmentek maiatzean izan duten jaitsiera ez da islatzen enpleguaren datuetan (+%0,4).

Horrela, 2025eko lehen bost hilabeteko metatuan Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua +%0,7 igo da.

Datuak sektoreka aztertuz gero, ikusten da industrian hazkundera +%0,9koa izan dela, zerbitzuetan +%0,4ko hazkundera eman dela eta eraikuntzan +%1,2koa.

4. taula – SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Maiatza	Δ% Urtarrila - Maiatza
Enplegu osoa	0,4	0,7
▪ Industria	0,9	0,9
▪ Eraikuntza	0,9	1,2
▪ Zerbitzuak	-0,1	0,4

4. grafikoa - SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

➤ **2025eko lehen bost hilabeteetan Gipuzkoako enpresek ordaindutako soldatak +%5,2 igo dira**


Soldaten igoera +%5,2koa izan da 2025eko lehen bost hilabeteetan. Sektorekako bilakaerari dagokionez, igoerarik handiena industrian eman da (+%5,4); eraikuntza sektorean hazkundera +%5,1ekoa izan da eta zerbitzuetan +%4,9koa.

Epealdi honetan, enpleguak (+%0,7) soldatek (+%5,2) baino askoz gutxiago egin du gora; beraz, langile bakoitzeko batez besteko ordainsariak %4,5 egin du gora. Industrian enplegua %0,9 igo da eta soldatak %5,4 hazi dira; beraz, batez besteko ordainsaria %4,5 igo da. Eraikuntzan enplegua +%1,2 igo da eta soldatak +%5,1 igo; beraz, batez besteko ordainsaria %3,9 igo da. Zerbitzuen sektorean, enpleguak +%0,4 egin du gora, eta soldatak, berriz, gehiago igo dira (+%4,9); beraz, batez besteko ordainsariak %4,5 egin du gora.

5. taula – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Maiatza	Δ% Urtarrila - Maiatza
Soldata osoak	5,0	5,2
• Industria	5,7	5,4
• Eraikuntza	0,9	5,1
• Zerbitzuak	4,3	4,9

5. grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK, KANPO MERKATARITZA, ENPLEGUA ETA SOLDATAK

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan hileroko bariazio tasak ematerakoan populazio konstantearen irizpidea erabili da. Hau da, bariazio tasa kalkulatu da bi urtez jarraian hilabete berean aitortzen duten enpresekin. Populazio konstantearen araberrako bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egozte.

Aldiz, hiruhileko, urteko eta epealdi metatuei dagozkion bariazioak kalkulatzeko batez besteko ponderatuak erabili dira.



➤ 2025eko maiatza

ENPRESEN EGOERA

1. taula - SALMENTA OSOAK: BARRUKO SALMENTAK ETA ESPORTAZIOAK

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2016	0,4	1,7	-1,8
2017	7,5	9,5	4,1
2018	6,6	5,8	8,0
2019	2,8	2,5	3,4
2020	-10,1	-9,1	-11,9
2021	16,8	15,8	18,7
2022	13,2	12,3	15,0
2023	2,9	4,2	0,8
2024	0,7	1,7	-1,0
2024 (1)	0,7	0,1	1,7
2025 (1)	1,6	2,6	0,0
2023 I	11,5	10,4	13,5
II	-4,8	-2,0	-9,3
III	0,5	3,3	-4,0
IV	5,1	5,5	4,4
2024 I	-5,4	-5,5	-5,3
II	5,8	6,1	5,1
III	1,4	1,3	1,4
IV	1,2	4,4	-4,6
2025 I	6,1	6,4	4,6
2024 urtarrila	-0,4	1,0	-2,8
otsaila	1,1	-0,1	3,1
martxoa	-14,5	-14,9	-13,7
apirila	19,4	17,7	22,4
maiatza	2,7	1,2	5,3
ekaina	-2,4	1,3	-8,8
uztaila	8,0	6,4	10,9
abuztua	-4,1	-1,1	-9,7
iraila	-0,9	-1,8	0,6
urria	5,7	4,5	7,8
azaroa	-2,1	3,4	-10,7
abendua	0,3	5,1	-9,1
2025 urtarrila	2,5	2,2	3,1
otsaila	3,3	6,6	-1,7
martxoa	15,0	12,8	18,7
apirila	-7,1	-6,6	-7,9
maiatza	-4,7	-0,8	-11,3

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan



➤ 2025eko maiatza

ENPRESEN EGOERA

2. taula - PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	7,1	13,1	7,7	-1,6
2007	7,1	7,5	11,8	5,6
2008	0,0	1,8	10,5	-4,8
2009	-20,5	-25,1	-11,1	-14,8
2010	2,1	6,0	-21,8	2,1
2011	0,5	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-3,6	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,3	3,4	0,9	3,4
2015	4,9	5,4	-7,5	6,3
2016	0,4	-0,7	-5,4	2,9
2017	7,5	6,3	5,1	9,6
2018	6,6	6,5	0,7	7,4
2019	2,8	2,6	-2,0	4,0
2020	-10,1	-12,9	-14,7	-5,5
2021	16,8	21,6	-9,8	14,4
2022	13,2	14,0	11,2	12,5
2023	2,9	1,2	10,4	4,4
2024	0,7	0,0	-3,9	2,1
2024 (1)	0,7	-0,2	-3,6	2,3
2025 (1)	1,6	0,6	1,3	2,9
2023 I	11,5	10,8	21,3	11,6
II	-4,8	-8,1	-1,0	-0,7
III	0,5	-1,8	3,8	3,0
IV	5,1	4,8	16,3	4,2
2024 I	-5,4	-6,8	-5,3	-3,7
II	5,8	6,3	-4,7	6,3
III	1,4	-0,4	2,0	3,4
IV	1,2	1,0	-6,5	2,3
2025 I	7,2	7,5	2,3	7,1
2024 urtarrila	-0,4	-2,1	-0,4	1,8
otsaila	1,1	-0,1	-2,8	3,0
martxoa	-14,5	-15,6	-11,5	-13,2
apirila	19,4	20,6	-4,1	20,6
maiatza	2,7	1,7	2,0	4,3
ekaina	-2,4	-0,8	-10,5	-3,5
uztaila	8,0	7,9	20,3	7,0
abuztua	-4,1	-8,7	-12,6	1,6
iraila	-0,9	-2,9	-0,9	1,6
urria	5,7	4,8	-13,5	9,0
azaroa	-2,1	-1,1	-1,7	-3,5
abendua	0,3	-0,5	-4,9	1,8
2025 urtarrila	2,5	2,1	-8,3	4,1
otsaila	3,3	1,3	7,5	5,6
martxoa	15,0	18,6	6,7	11,3
apirila	-7,1	-9,4	-9,1	-3,9
maiatza	-4,7	-8,2	8,4	-1,5

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan



3. taula – ESPORTAZIO ETA INPORTAZIOAK INGURUNE GEOGRAFIKOEN ARABERA

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	EB	Besteak	Guztira	EB	Besteak
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2016	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
2017	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7
2018	8,0	17,4	-5,3	10,5	8,4	18,6
2019	3,4	4,5	1,4	3,0	1,2	9,6
2020	-11,9	-12,9	-10,1	-13,5	-14,8	-9,2
2021	18,7	3,4	45,3	22,0	17,6	36,3
2022	15,0	14,3	15,8	21,5	16,8	34,3
2023	0,8	2,3	-1,0	-6,9	-2,4	-17,9
2024	-1,0	-4,0	2,7	0,5	0,1	1,7
2024 (1)	1,7	-1,2	5,4	-2,2	-0,8	-6,1
2025 (1)	0,0	-2,4	2,8	3,1	0,7	10,4
2023 I	13,5	13,0	14,1	-5,7	-0,1	-19,6
II	-9,3	-9,1	-9,5	-7,2	-4,7	-13,1
III	-4,0	-1,5	-6,9	-7,3	-4,0	-15,3
IV	4,4	8,0	0,3	-7,4	-0,6	-23,8
2024 I	-5,3	-8,2	-1,7	-5,7	-5,0	-7,9
II	5,1	3,3	7,3	-0,2	1,3	-4,3
III	1,4	-0,8	4,2	1,5	1,2	2,4
IV	-4,6	-9,5	1,3	6,6	3,0	17,8
2025 I	6,9	1,2	13,6	8,9	4,8	22,0
2024 urtarrila	-2,8	-6,1	1,8	-3,4	-3,1	-4,1
otsaila	3,1	-2,6	11,3	-0,6	-0,1	-2,0
martxoa	-13,7	-14,6	-12,6	-11,9	-10,6	-16,1
apirila	22,4	21,5	23,5	13,4	10,5	21,4
maiatza	5,3	1,3	10,5	-6,0	1,3	-22,1
ekaina	-8,8	-9,0	-8,5	-5,8	-6,0	-5,0
uztaila	10,9	10,2	11,7	5,3	11,3	-9,0
abuztua	-9,7	-15,3	-2,7	-7,0	-12,1	6,8
iraila	0,6	-0,4	1,8	4,6	2,3	11,2
urria	7,8	2,7	14,6	10,6	7,0	21,0
azaroa	-10,7	-17,8	-1,5	2,0	1,2	4,5
abendua	-9,1	-11,9	-6,2	7,0	0,8	29,2
2025 urtarrila	3,1	-0,9	8,2	5,1	3,4	9,7
otsaila	-1,7	-6,3	3,5	6,6	-0,8	32,1
martxoa	18,7	10,5	27,7	14,7	11,4	26,0
apirila	-7,9	-6,8	-9,2	-9,4	-6,2	-17,7
maiatza	-11,3	-7,9	-15,2	0,0	-3,9	11,6

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan



➤ 2025eko maiatza

ENPRESEN EGOERA

4. taula- PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	-0,2	-1,1	3,7	1,6
2007	1,8	0,9	5,3	3,7
2008	0,2	-1,1	0,2	4,2
2009	-6,1	-7,1	-1,1	-4,8
2010	-2,8	-3,0	-9,7	-0,6
2011	-0,7	-0,3	-11,6	0,5
2012	-3,1	-3,0	-11,2	-2,0
2013	-2,9	-3,3	-9,2	-1,0
2014	-0,7	-2,3	-4,1	2,9
2015	2,1	1,6	-5,6	3,5
2016	2,8	1,7	-7,9	5,5
2017	2,6	2,6	-3,6	3,1
2018	3,6	3,0	3,1	4,5
2019	2,2	2,0	1,2	2,6
2020	-2,2	-2,0	-4,6	-2,3
2021	1,1	0,1	-1,8	2,6
2022	2,0	1,7	-1,1	2,5
2023	1,4	1,3	-2,1	1,7
2024	1,7	2,1	-0,9	1,3
2024 (1)	1,7	2,9	-1,1	0,5
2025 (1)	0,7	0,9	1,2	0,4
2023 I	1,1	0,8	0,9	1,6
II	1,8	1,3	-2,7	2,6
III	1,7	1,5	-3,2	2,3
IV	0,9	1,7	-3,3	0,2
2024 I	1,8	3,2	-1,8	0,5
II	1,3	2,4	-0,2	0,3
III	2,1	1,9	-0,3	2,6
IV	1,5	1,2	-1,5	2,1
2025 I	1,0	1,0	1,3	0,9
2024 urtarrila	2,3	4,0	-2,2	0,6
otsaila	1,6	3,0	-1,4	0,2
martxoa	1,6	2,6	-1,8	0,6
apirila	1,8	2,4	0,3	1,1
maiatza	1,2	2,4	-0,3	0,0
ekaina	1,0	2,2	-0,6	-0,3
uztaila	2,3	2,4	-0,8	2,3
abuztua	2,0	1,6	-0,2	2,8
iraila	2,1	1,7	0,2	2,6
urria	1,7	1,8	-1,7	1,7
azaroa	1,6	1,1	-1,8	2,3
abendua	1,3	0,6	-1,1	2,2
2025 urtarrila	0,9	0,6	1,4	1,3
otsaila	1,5	1,5	1,4	1,5
martxoa	0,5	0,8	1,2	0,0
apirila	0,0	0,5	1,1	-0,8
maiatza	0,4	0,9	0,9	-0,1

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan



➤ 2025eko maiatza

ENPRESEN EGOERA

5. taula – PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	4,1	2,8	7,8	7,7
2007	5,9	5,2	10,0	6,9
2008	5,1	3,5	5,0	10,7
2009	-5,3	-6,8	1,0	-2,9
2010	-1,3	-0,8	-9,4	-0,2
2011	2,5	4,0	-11,5	1,8
2012	-2,4	-2,1	-12,7	-0,9
2013	-1,5	-1,2	-9,4	-0,7
2014	-0,1	-0,5	-4,2	1,6
2015	2,1	2,0	-3,3	3,1
2016	2,5	1,9	-8,8	5,2
2017	4,1	4,2	-5,1	4,6
2018	4,6	4,1	6,4	5,3
2019	3,7	3,0	3,7	5,1
2020	-3,0	-3,4	-2,9	-2,3
2021	4,3	4,0	-0,3	5,4
2022	6,5	6,6	4,5	6,5
2023	6,9	6,7	4,1	7,5
2024	6,7	7,2	2,7	6,3
2024 (1)	7,8	9,0	4,1	6,2
2025 (1)	5,2	5,4	5,1	4,9
2023 I	5,7	5,3	6,6	6,2
II	6,6	5,3	6,9	8,9
III	6,7	5,9	1,7	8,7
IV	8,4	9,9	1,7	6,4
2024 I	8,4	9,7	5,0	6,6
II	6,8	7,6	1,6	6,0
III	7,0	8,0	1,7	5,6
IV	5,1	4,1	2,5	6,9
2025 I	6,1	6,4	4,6	5,7
2024 urtarrila	7,8	9,1	6,3	5,7
otsaila	9,9	11,6	1,6	7,9
martxoa	7,5	8,4	6,9	6,1
apirila	8,3	9,9	-3,5	6,7
maiatza	5,8	6,4	9,3	4,4
ekaina	6,4	6,6	-0,2	6,8
uztaila	8,0	9,3	1,7	6,0
abuztua	5,8	6,6	3,0	4,9
iraila	6,4	7,0	0,4	5,8
urria	6,7	7,4	1,9	6,0
azaroa	7,4	6,8	0,3	8,9
abendua	2,9	1,1	4,2	6,3
2025 urtarrila	5,7	5,5	2,7	6,2
otsaila	6,8	7,6	3,7	5,6
martxoa	5,9	6,1	6,9	5,4
apirila	2,9	2,2	11,5	3,3
maiatza	5,0	5,7	0,9	4,3

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan